

Galdera

"kiolarekin batera, oso garrantzitsua deritzot elikadura zaintzea/zaintzeari", "Zer/zeri deritzozu garrantzitsua? Elikadura zaintzea/zaintzeari": zein da zuzena eta zergatik?

Erantzuna

Kiolarekin batera, oso garrantzitsu(a) deritzat/deritzot elikadura zaintzeari.

Zeri deritzazu/deritzozu garrantzitsu(a)? Elikadura zaintzeari.

1/ 'Iritzi' aditza **dio** (**NORI** edo **ZERI**) erregimenekoa da:

Zer deritzazue/deritzozue (horri)?

Guk gaizki deritzagu/deritzogu baserria saltzeari

2/ Aditz trinkoa da, eta **-o** zein **-a** formak daude onarturik:

deritzat/deritzot, deritza/deritzo...

3/ Atributua duenean, **mugatua** zein **mugagabea**, zuzenak dira biak:

Eder/ederra deritzat

Gogaikarri/gogaikarria deritzot

4/ 'Iritzi' aditzak 'deitu' edo 'izena izan' adiera ere badu:

Nola deritzu zuri? Peru derizt niri

Otsanda deritza neska horri

5/ Gehiago jakiteko:

[iritzi](#) (Euskaltzaindiaren Hiztegia)

[Euskal aditz batua](#), 1979, 171.-175. or.